

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

Alkatearen dekretua, 2019ko azaroaren 22koa, Euskadiko Turismo Mahaian ordezkaritza eskuordetzeari buruzkoa

Eusko Jaurlaritzaren urtarrilaren 27ko 5/2015 Dekretu bidez Euskadiko Turismo Mahaia sortu eta arautu zen, turismoaren alorrean eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzaren sailaren aholku-organo gisa.

Dekretu horretako 3.2.f) artikulua arabera, Turismo Mahaia egongo dira, besteak beste, "Hiru Lurralde Historikoetako hiriburuetakoko alkateak, edo zinegotziak edo eskuordetutako zuzendariak".

2019ko maiatzaren 26ko tokiko hauteskunderen ondorio den Udalbatza eratu delarik, erakundeak parte hartzen duen kide anitzeko organoetan hura ordezkatzeko duten pertsona fisikoen izendapena eguneratu beharra dago.

Ildo horretatik, aintzat hartu da Euskadiko Turismo Mahaia sortu eta arautzeko Eusko Jaurlaritzaren urtarrilaren 27ko 5/2015 Dekretuan xedatutakoa.

Aintzat hartu da, baita, Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 124. artikuluan xedatzen duena: "Alkateak dekretu bidez eman ahal izango dizkie eskuordetzan lehen esandako eskumenak tokiko gobernu-batzarrari, bertako kideei, gainerako zinegotziei, baita koordinatzaile nagusiei, zuzendari nagusiei zein antzeko beste organo batzuei". Beraz, hau

Xedatu dut

Araceli de la Horra Gutiérrezi –zein Ekonomia-Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zuzendaria baita– eskuordetzan ematea Gasteizko Udalaren ordezkaritza Euskadiko Turismo Mahaian.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko azaroaren 22an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE